Sopelako Udala
Ayuntamiento de Sopela

**LAURA ARANA AGUIRRE andrea, Sopelako (Bizkaia) Udaleko Idazkaria naizen honek, zera**

**EGIAZTATZEN DUT:**

**2024ko ekainaren 14ko Udal honetako Tokiko Gobernu Batzordeak, Udalbatzen Legezko Araupidearen Iharduerarako Arautegiaren 206 Atalak erabakitzen duenaren salbu, beste batzuen artean, honako erabakia hartu zuela:**

**7.- UDAL DIRULAGUNTZEN DEIALDIA, GOI-MAILAKO EDO ERRENDIMENDU HANDIKO KIROLARITZAT/PROMESATZAT ETA AURREPROMESATZAT JO DIREN SOPELAKO KIROLARIAK, TEKNIKARIAK ETA EPAILEAK FINANTZATZEKO (1686/2024 ESPEDIENTEA): -** 2024/06/06an, arloko zinegotzigoak goiburuan deskribatutako dirulaguntzak emateko espedientearen hasierako txostena sinatu zuen

Tokiko Gobernu Batzarrak 2024ko apirilaren 12an hartutako erabakiaren bidez hirugarren aldiz aldatutako PESen eranskinean kirolen arloko dirulaguntzak jasotzen dira.

Aztertu da 2024ko ekitaldirako onartutako aurrekontua, Sopelako Udalak eskainiko dituen lehia askeko dirulaguntzak ezartzen dituena. Egiaztatu da 04 341 48000 aurrekontu-partida bat dagoela, 15.000,00 euroko kreditua duena, "KL errendimendu handiko kirolarientzako dirulaguntzak" izenekoa.

Ikusita, baita ere, Sopelako Udalean aurreikusita dagoela diru-laguntzen banaketa arautzen duen ordenantza orokorraren 5. artikuluan, oro har, lehiaketa araubidea baliatuz izapidetuko dela.

Ikusita, baita ere, Kultur Arloko AOT –k eta Udalaren Kontu-hartzailetzak burututako aldeko txostenak.

Eta Alkatetzaren 2023ko uztailaren 10eko 904/2023 Dekretuak emandako eskumenak baliatuz,

<u>Tokiko Gobernu-batzarrak, aho batez erabaki du</u>

**Dª LAURA ARANA AGUIRRE, secretaria del Ayuntamiento de Sopela (Bizkaia)**

**CERTIFICO:**

**Que la Junta de Gobierno Local de este Ayuntamiento, en sesión celebrada con fecha 14 de junio de 2024, con la salvedad que determina el Artículo 206 del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales, entre otros, adoptó el siguiente acuerdo:**

**7.- CONVOCATORIA SUBVENCIONES MUNICIPALES DESTINADAS A FINANCIAR A DEPORTISTAS, TÉCNICAS Y TÉCNICOS Y JUEZAS Y JUECES DE SOPELA QUE HAYAN SIDO DECLARADAS DEPORTISTAS DE ALTO NIVEL O DE ALTO RENDIMIENTO/PROMESAS Y PREPROMESAS (EXPEDIENTE 1686/2024): -** Visto que con fecha 06/06/2024, la concejalía del área suscribe el consiguiente informe de inicio del expediente para la concesión de las subvenciones descritas en el encabezado

Visto que, en el Anexo del PES, modificado por tercera vez mediante acuerdo de la Junta de Gobierno Local de fecha 12 de abril de 2024, se contemplan las subvenciones en el ámbito de los Deportes.

Visto el presupuesto aprobado para el ejercicio del 2024, donde se establecen las subvenciones de libre concurrencia que se van a ofertar por parte del Ayuntamiento de Sopela, se comprueba que existe una partida presupuestaria 04 341 48000, con un crédito de 15.000,00 euros bajo la denominación "Subvenciones deportistas alto rendimiento LC".

Visto que el art. 5 de la Ordenanza General Reguladora del Régimen de Concesión de Subvenciones del Ayuntamiento de Sopela establece que las subvenciones se concederán con carácter general en régimen de concurrencia competitiva.

Visto, a su vez, los informes favorables emitidos al efecto por el TAG de Cultura y la Intervención municipal.

Y en uso de las competencias delegadas por Decreto de Alcaldía número 904/2023 de 10 de julio de 2023

<u>La Junta de Gobierno Local, por unanimidad acuerda</u>

Gurutzne Carrasson Torrontegui (1, guztira 2)
Alkatea
Sinaduraren data: 14/06/2024
HASH: e73600c28daeb346aa5b850065352b70

Laura Arana Aguirre (2, guztira 2)
Secretaria
Sinaduraren data: 14/06/2024
HASH: ff4fa17718566 9e60623c19daf872c9c

Baliozkotze Kod.: 7SXJAA3YGKZG73237QPPATF74
Egiaztapena: https://sopela.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 1. orrialdea, guztira 12

**LEHENENGOA. -** Sopelako goi-mailako kirolaritzat edo errendimendu handiko kirolaritzat/promesatzat eta aurrepromesatzat jotako kirolari, teknikari eta epaileak finantzatzeko dirulaguntzak emateko urteko deialdi publikoa onartzea, 04 341 48000 aurrekontu-partidaren kargura, eta deialdiaren laburpena BAOn eta BDNSn argitaratzeko agintzea.

**BIGARRENA. -** Deialdia hurrengo eranskinean zehazten denaren arabera izapidetuko da:

**ERANSKINA**

**DEIALDIA, 2024koa, NORGEHIAGOKA BIDEZ GOI MAILAKO KIROLARITZAT EDO ERRENDIMENDU HANDIKO KIROLARITZAT/PROMESATZAT ETA AURRE-PROMESATZAT JO DIREN SOPELAKO KIROLARI, TEKNIKARI ETA EPAILEAK FINANTZATZEKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO**

**1. artikulua. - Helburua eta pertsona onuradunak**

1.- Deialdi honen helburua Sopelako kirolari, teknikari eta epaileak finantzatzea da, baldin eta goi-mailako kirolaritzat edo errendimendu handiko kirolaritzat/promesatzat eta aurrepromesatzat jo badira.

2.- Deialdia honi dagokienez, indarrean egon behar den Kirol Kontseilu Gorenaren lehendakariaren ebazpenaren bitartez, edo eta Kirol-arloko eskumena duen Sailaren aginduaren bitartez onartutakoak baino ez dira izango goi-mailako kirolari, teknikari eta epaileak.

3.- Deialdia honi dagokienez, errendimendu handiko kirolaritzat, promesatzat eta aurre-promesatzat hartuko dira Kirol Kontseilu Gorenak edo autonomia-erkidegoak, dagokionaren arabera, halakotzat kalifikatutako kirolari, teknikari eta epaileak.

**2. artikulua. - Finantzaketa**

Deialdi honen barruko helburua betetze aldera, finantzaketa aurrekontuko kredituaren kontura egingo da, eta gehienez 15.000,00 euro, eurokoa izango da. Hain zuzen ere, aurrekontuko partida honen kontura egingo da: 04 341 48000.

**PRIMERO. -** Aprobar la convocatoria pública anual para la concesión de ayudas económicas destinadas a financiar a deportistas, técnicas y técnicos, juezas y jueces de Sopela que hayan sido declaradas deportistas de alto nivel o de alto rendimiento/promesas y prepromesas, con cargo a la partida presupuestaria 04 341 48000, y ordenando la publicación del extracto de la convocatoria en el BOB y en la BDNS.

**SEGUNDO. -** La convocatoria se tramitará de acuerdo con las especificaciones recogidas en el siguiente anexo:

**ANEXO**

**CONVOCATORIA DEL AÑO 2024 PARA LA CONCESIÓN, EN RÉGIMEN DE CONCURRENCIA COMPETITIVA, DE SUBVENCIONES DESTINADAS A FINANCIAR A DEPORTISTAS, TÉCNICAS Y TÉCNICOS, JUEZAS Y JUECES DE SOPELA QUE HAYAN SIDO DECLARADAS DEPORTISTAS DE ALTO NIVEL O DE ALTO RENDIMIENTO/PROMESAS Y PREPROMESAS**

**Artículo 1.- Objeto y personas beneficiarias**

1.- El objeto de esta convocatoria es financiar a deportistas, técnicas y técnicos y juezas y jueces de Sopela que hayan sido declaradas deportistas de alto nivel o de alto rendimiento/promesas y prepromesas.

2.- Tendrán la consideración de deportistas, técnicas y técnicos, juezas y jueces de alto nivel, las declaradas como tales mediante resolución en vigor del Presidente del Consejo Superior de Deportes, o bien mediante Orden de la Consejería competente en materia de deporte.

3.- Tendrán la consideración de deportistas de alto rendimiento, promesas y prepromesas aquellos deportistas, técnicos/as y jueces calificados/as como tales por el Consejo Superior de Deportes o por la comunidad autónoma, según corresponda.

**Artículo 2.- Financiación**

A los efectos del cumplimiento del objeto de la presente convocatoria, la financiación se efectuará con cargo a un crédito presupuestario máximo de 15.000,00 euros, con cargo a la partida presupuestaria 04 341 48000.

Baliozkotze Kod.: 7SXJAA3YGKZG73237QPPATF74
Egiaztapena: https://sopela.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 2. orrialdea, guztira 12

Edonola ere, diru-laguntzak eman ahal izateko, kreditu egokia eta behar adinakoa izan beharko da emakida erabakitzeko unean.

**3. artikulua. - Eskaerak aurkezteko epea, dokumentazioa eta modua**

1.- **Epea:** Hil bateko epea dago eskabideak aurkezteko, honako deialdi honen laburpena BAOn argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

2.- **Dokumentazioa: I. Eranskinean** atxikitutako eskaera orokorreko ereduan egin beharko dira dekretu honetan araupeturiko laguntzak eskuratzeko eskabideak. Udalak telematika bidez eman ahal izango die eredu hori hala eskatzen duten pertsona guztiei.

Eskaera-orriarekin batera, honako hauek aurkeztu beharko dira, behar bezala beteta:

a) Goi-mailako, errendimendu handiko, promesa edo aurre promesa kirolaria, teknikaria edo epailea dela – indarrean dagoela – egiaztatzea.

b) Bere izenean dagoen kontu korronte baten titulartasuna ziurtatzen duen agiria (hirugarrenen fitxa). Dokumentu hau lehen aldiz eskatzen denean edo kontuaren inguruabarrak aldatu direnean bakarrik aurkeztu beharko da. **II. eranskina**.

Sopelako Udalak, kasu zehatz bakoitza kontuan hartuta, egoki iritzitako beste edozein agiri osagarri eskatu ahal izango die eskatzaileei.

Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoa betetzeko, ohartarazten da aipatutako dokumentazioaren zati gisa emandako datuak dirulaguntza hau emateko prozeduran soilik erabiliko direla.

3.- **Modua:** Sopelako Udalak Sabino Arana kaleko 1.ean duen Erregistro Nagusian aurkeztu beharko dira eskabideok, edo bestela, Larrabasterrako Loiola Ander Deuna kaleko 28. zenbakian dagoen Herritarren Arretarako Bulegoan.

Era berean, eta udal *web*-a erabiliz, egoitza elektronikoan kokatutako Erregistro Elektronikoaren bitartez egin daitezke eskabideok, https://sopela.egoitzaelektronikoa.eus/info.

En todo caso, la concesión de las subvenciones queda condicionada a la existencia de crédito adecuado y suficiente en el momento de la resolución de concesión.

**Artículo 3.- Plazo, documentación y forma de presentación de solicitudes**

1.- **Plazo:** El plazo de presentación de solicitudes será de un mes a contar a partir del día siguiente a la publicación del extracto de la convocatoria en el BOB.

2.- **Documentación:** Las solicitudes para concurrir a las ayudas que se regulan en este Decreto habrán de formularse en el modelo de instancia que se adjunta como **Anexo I**. El Ayuntamiento podrá facilitar dicho modelo de forma telemática a todas las personas que así lo requieran.

Junto con la instancia de solicitud habrán de presentarse, debidamente cumplimentados:

a) Acreditación de la condición –en vigor- de deportista, técnica o técnico, jueza o juez de alto nivel, alto rendimiento, promesa o prepromesa.

b) Documento que certifique la titularidad de una cuenta corriente a su nombre (ficha de terceros). Este documento sólo será necesario presentarlo cuando se solicite una ayuda por primera vez o hayan variado las circunstancias de la cuenta. **Anexo II.**

El Ayuntamiento de Sopela podrá, en atención a cada caso concreto, requerir a los/as solicitantes cualquier otra documentación complementaria que considere oportuna.

A los efectos del cumplimiento de lo establecido en Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales, se advierte que los datos aportados como parte de la documentación relacionada serán utilizados exclusivamente en el procedimiento de concesión de la presente subvención.

3.- **Forma:** Dichas solicitudes deberán presentarse en el Registro General del Ayuntamiento de Sopela ubicado en la calle Sabino Arana, 1, o bien en la Oficina de Atención Ciudadana ubicada en la calle Loiola Ander Deuna 28, de Larrabasterra.

Así mismo, también podrá utilizarse el Registro Electrónico de sede electrónica del ayuntamiento, a la que se accede a través de *web* municipal, https://sopela.egoitzaelektronikoa.eus/info.

Baliozkotze Kod.: 7SXJAA3YGKZG73237QPPATF74
Egiaztapena: https://sopela.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 3. orrialdea, guztira 12

Herri Administrazioetako Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4. artikuluan ezarritako eran eta tokian aurkeztu ahal izango dira (Correos).

4.- Eskabidean beren beregi utziko da jasota jakinarazpenak jaso ahal izateko erabili nahi den helbidea. Eskatzailearen egitekoa izango da Sopelako Udalari beren beregi jakinaraztea aurkeztutako datuetan izandako edozein aldaketa, bereziki eskatzailearen helbideari eta bankuko datuei dagokienez.

**4. artikulua. - Diru-laguntza eskuratzeko baldintzak**

Hiru baldintza ezartzen dira deialdi honetan arautzen diren diru-laguntzak jaso ahal izateko:

a) Goi-mailako, errendimendu handiko, promesa edo aurre promesa kirolaria, teknikaria edo epailea izatea.

b) Sopelako udalerrian azken urtean egoitza izatea ziurtatzea, deialdi honen argitaratzen datatik aurrera kontatzen hasita.

c) Laguntza hau ez dute jasoko diru-sarreretan urteko 27.000 euroko zenbateko gordina gainditzen duten kirolariek. **Elkarreragintasuna**: Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritakoarekin bat etorriz, **eta eskatzailea berariaz aurka ez badago – I. eranskinean** adierazi beharko du –, Sopelako Udalak ofizioz jardungo du aipatutako datuak kontsultatzeko dituen elkarreragingarritasun-bitartekoen bidez. Hala ere, Sopelako Udalak ez balu organo eskudunaren baimenik lortuko datu horiek kontsultatzeko, dirulaguntza eskatzen duen pertsonari eskatuko litzaioke ziurtagiri horiek aurkezteko.

Halaber, Sopelako Udalak diru-sarrerak ezarritako mugatik beherakoak direla egiaztatzeko bitartekaritza-sistemak erabiltzeari uko egiten badio, interesdunek pertsona fisikoen azken ekitaldiko errenta-aitorpena edo errenta-aitorpena aurkezteko betebeharrik ez dutela egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztu beharko dute.

**5. artikulua. - Osatu gabeko eskaerak edo eskaera akastunak**

La presentación podrá también realizarse en la forma y lugar previstos en el artículo 16.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas (Correos).

4.- En la solicitud se hará constar expresamente el domicilio que se señale a efectos de notificaciones. Será cometido de la persona solicitante informar expresamente al Ayuntamiento de Sopela de cualquier variación de datos que haya podido producirse, especialmente en lo referente al domicilio del solicitante y a los datos bancarios.

**Artículo 4.- Requisitos para acceder a la subvención**

Se establecen tres requisitos para poder percibir las ayudas reguladas en esta convocatoria:

a) Ostentar la condición de deportista, técnica o técnico, jueza o juez de alto nivel, alto rendimiento, promesa o prepromesa.

b) Acreditar una residencia ininterrumpida mínima en el término municipal de Sopela durante un año desde la fecha de publicación del extracto de la convocatoria.

c) No percibir unos ingresos superiores a los 27.000 euros brutos anuales. **Interoperabilidad**: De conformidad con lo establecido en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, **y salvo expresa oposición** de la persona solicitante que deberá manifestarse en el **Anexo I**, el Ayuntamiento de Sopela procederá de oficio por los medios de interoperabilidad de que disponga a consultar los datos referidos con anterioridad. No obstante, si el Ayuntamiento de Sopela no obtuviese del órgano competente la autorización para consultar los referidos datos, se requeriría a la persona solicitante de la subvención para que aportase los citados certificados.

Asimismo, en caso de oponerse a que el Ayuntamiento de Sopela utilice los sistemas de intermediación para comprobar que los ingresos son inferiores al límite estipulado, las personas interesadas deberán presentar la declaración de la renta de las personas físicas del último ejercicio o certificado de no tener obligación de presentarla.

**Artículo 5.- Solicitudes incompletas o defectuosas**

Baliozkotze Kod.: 7SXJAA3YGKZG73237QPPATF74
Egiaztapena: https://sopela.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 4. orrialdea, guztira 12

Aurkeztutako eskaera edo eskaerarekin batera aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe badago edo konpon daitekeen akatsen bat badu, eskatzaileari eskatuko zaio zuzen dezala gehienez 10 egun baliodun eko epean, eskakizunaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Era berean, adieraziko zaio, akatsak zuzendu ezean, eskaerari uko egin diola ulertuko dela.

**6. artikulua.- Zenbatekoak eta mugak**

1.- Baldintza guztiak betetzen dituzten eskatzaileei ezarriko zaizkien diru-kopuruak hurrengo hauek izango dira:

a) Goi-mailako kirolari, teknikari eta epaileak: 900 euro.

b) Errendimendu handiko/promesa diren kirolari, teknikari eta epaileak: 800 euro.

c) Aurre promesa diren kirolari, teknikari eta epaileak: 400 euro.

2.- Eman beharreko zenbateko osoak horretarako izendatutako aurrekontu-kreditoan kontsignatutako kopurua gainditzen badu, zenbateko hori diru-laguntza guztien artean proportzionalki banatuko da; horrela, eskaera guztiak deialdi honetan araututako diru-laguntzetako bat jaso ahal izango dute.

**7. artikulua. - Izapidea eta ebazpena**

a) Deialdi espezifiko honetan jasotako laguntzak emateko instrukzio- organoa Kultur Arloa izango da.

b) Ebazteko eskumena duen organoa alkatetza izango da, Gobernu Batzordeak proposatuta.

c) Ebazpena emateko epea gehienez hiru hilabetekoa izango da, eskaerak aurkezteko epea amaitzen denetik kontatzen hasita. Epea amaitu ondoren, diru-laguntzaren eskabidea ezetsia izango da, berariazko ebazpena eman ezean, 39/2015 Legea, urriaren 1eko, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena Legeko 25. artikuluan ezarritakoari jarraiki.

d) Emango den ebazpenarekin administrazio-bidea agortuko da, eta horren aurka administrazioaren auziekiko epaitegiaren aurrean administrazioarekiko Auzi-Errekurtsoa aurkeztu

En el caso de que la solicitud presentada o la documentación adjuntada sean incompletas o adolezcan de algún otro defecto subsanable, se requerirá a la persona solicitante para que proceda a su subsanación en el plazo máximo de 10 días hábiles, a contar desde el siguiente a la notificación del requerimiento, indicándole que, de no hacerlo así, se le tendrá por desistido de su solicitud.

**Artículo 6.- Cuantías y límites**

1.- Las cuantías que se otorgarán a las personas que cumplan los requisitos serán las siguientes:

a) Deportistas, técnicas y técnicos, juezas y jueces de alto nivel: 900 euros.

b) Deportistas, técnicas y técnicos, juezas y jueces alto rendimiento/promesas: 800 euros.

c) Deportistas, técnicas y técnicos, juezas y jueces prepomesas: 400 euros.

2.- En el caso de que la cuantía total a conceder supere la cantidad consignada en el crédito presupuestario asignado a tal fin, dicha cuantía se prorrateará, en función de la puntuación obtenida, entre todas las solicitudes, de manera que todas las solicitudes puedan percibir una subvención.

**Artículo 7.- Tramitación y resolución**

a) El órgano instructor para la concesión de las ayudas recogidas en la presente convocatoria será el Área de Cultura.

b) El órgano competente para resolver será Alcaldía, a propuesta de la Junta de Gobierno.

c) El plazo máximo para dictar resolución será de tres meses, a contar desde el fin del plazo establecido para la presentación de solicitudes, transcurrido el cual se entenderá desestimada la petición de subvención si no recayera resolución expresa, a los efectos de lo establecido en el artículo 25 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

d) La resolución que se dicte pondrá fin a la vía administrativa y contra la misma se podrá interponer en el plazo de dos meses, contados desde el día siguiente al de la recepción de la correspondiente

Baliozkotze Kod.: 7SXJAA3YGKZG73237QPPATF74
Egiaztapena: https://sopela.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 5. orrialdea, guztira 12

ahal izango da bi hilabeteko epean, dagokion jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Hala ere, aurreko paragrafoan adierazitako administrazioarekiko Auzi-Errekurtsoa jarri aurretik, hilabete bateko epean, aukerako berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango da, ebazpena emandako organo beraren aurrean.

e) Deialdi honetan arautako laguntzak pertsona onuradunei emateko eta, hala badagokio, ordaintzeko, Sopelako Udalak ematen dituen izaera bereko laguntzen edo diru-laguntzen esparruan hasi eta oraindik izapide-bidean dauden itzultzeko edo zehatzeko edozein prozedurak amaituta egon beharko du.

**8. artikulua. - Bateragarritasuna**

1.- Deialdi honetako diru-laguntzak bateragarriak izango dira beste instituzio batzuek, publikoek edo pribatuek, xede bererako emandako beste edozein diru-laguntzarekin, betiere gainfinantzaketarik gertatzen ez bada.

2.- Diru-laguntza ez da ordainduko pertsona edo erakunde onuradunak diru-laguntzaren bat justifikatu gabe badu, justifikatzeko emandako epea dagoeneko amaituta izanda. Era berean, ez da ordainduko pertsonak edo erakundeak aurreko diru-laguntzaren bat itzuli ez badu, horrela eskatu zaionean.

**9. artikulua. - Pertsona onuradunaren betebeharrak**

1.- Pertsona eskatzailea, diru-laguntzaren onuraduna suertatzen bada, Sopelako Udalaren babesa lortu duela nahitaez adierazi beharko du sustapen-elementuetan eta diruz lagundutako jardueren harira ateratako edozein idatzizko elementuan. Elementu guzti hauek, gutxienez, euskaraz egon beharko dira.

2.- Sopelako Udalaren logotipoa jartzen den material guztietan, «babesle nagusia» testua agertu beharko da, horrela baldin bada.

3.- Diru-laguntza jasotzen duten pertsona fisiko edo juridiko guztiek finantzaketa horren berri eman beharko dute, Sopelako Udalaren logotipoa edo aipamena sartuz jardueraren bidez sortutako informazio eta publizitate material guztietan, fitxategi elektronikoetan edo ikus-entzunezkoetan. Horretarako, Udalak bere logotipoa emango die eskatzen duten pertsona fisiko eta juridikoei.

notificación, Recurso Contencioso-Administrativo ante el juzgado de lo contencioso-administrativo. No obstante, con carácter potestativo y previo al Recurso Contencioso-Administrativo señalado en el párrafo anterior, cabrá interponer en el plazo de un mes recurso de reposición ante el mismo órgano que dictó la resolución.

e) La concesión y, en su caso, el pago a las personas beneficiarias de las ayudas reguladas en la presente convocatoria quedará condicionado a la terminación de cualquier procedimiento de reintegro o sancionador que, habiéndose iniciado en el marco de ayudas o subvenciones de la misma naturaleza concedidas por el Ayuntamiento de Sopela, se halle todavía en tramitación.

**Artículo 8.- Compatibilidad**

1.- Las subvenciones ahora convocadas serán compatibles con cualesquiera otras, concedidas por otras instituciones, públicas o privadas, para el mismo objeto, siempre que no se produzca sobrefinanciación.

2.- El abono de la subvención no se llevará a cabo si la persona o entidad beneficiaria tuviese pendiente justificar alguna subvención cuyo plazo de justificación hubiese ya finalizado. Tampoco se procederá al abono si la persona o entidad no hubiese reintegrado alguna subvención anterior cuando así se le haya requerido.

**Artículo 9.- Obligaciones de la persona beneficiaria**

1.- La persona solicitante que finalmente resulte beneficiaria de esta subvención está obligada a incorporar en los elementos de promoción y en los carteles, textos o documentos que se elaboren con ocasión de la actividad subvencionada -los cuales deberán editarse también en euskara-, la mención del patrocinio del Ayuntamiento de Sopela.

2.- En todos los materiales en los que se incluya el logotipo de Sopelako Udala deberá aparecer la leyenda «Principal patrocinador» cuando así lo sea.

3.- Toda persona a la que se le conceda la subvención deberá hacer pública esta financiación, incluyendo el logotipo o mención de Sopelako Udala en los materiales impresos informativos y publicitarios, archivos electrónicos o audiovisuales que genere la actividad. Para ello, el Ayuntamiento facilitará a las personas físicas solicitantes su logotipo a petición de las mismas.

Baliozkotze Kod.: 7SXJAA3YGKZG73237QPPATF74
Egiaztapena: https://sopela.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 6. orrialdea, guztira 12

**10. artikulua. - Diru-laguntza itzultzea**

1.- Bidezkoa izango da jasotako laguntzak itzultzea Sopelako Udalaren diru-laguntzak emateko araubideari buruzko ordenantza orokorreko 19. artikuluan, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 37. artikuluan eta Legearen Erregelamendua onetsi duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuko III. Tituluko I. Kapituluan ezarritako kasuetan betiere.

2.- Halaber, jasotako diru-laguntzak bueltatu behar izango dira, hurrengo kasu hauetan:

a) Administrazio-zehapen irmo bat izatea, dopin-arloko arauak hautsi izanagatik.

b) Zehapen irmo bat izatea, kirol-diziplina arloan oso arau-hauste larri bat egin izanagatik.

c) Administrazio edo zigor-arloko zehapen irmo bat izatea, sexu-arrazoiengatik bereizkeria egin izanagatik.

2.- Zuzenbide publikoko sarreratzat joko dira onetsitako diru-laguntzaren gainean jasotako diru-kopuruak itzultzea, eta Sopelako Udaleko zerga-bilketari buruzko udal ordenantzan, Herri Administrazioetako Administrazio Prozedurari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean, Legearen Erregelamendua onetsi duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan eta aplikatu beharreko prozedurako gainerako arauetan ezarritakoarekin bat etorriz.

**11. artikulua. - Jomugaren justifikazioa**

1.- Sopelako Udalak beharrezko egiaztapenak egin ahal izango ditu, kasu bakoitzean egoki iritzitako eran, zertarako-eta emandako diru-laguntzen jomuga eta aplikazioa bermatzeko, baita behar bezala erabiltzen dela ere.

2.- Izan litezkeen erantzukizunei kalterik egin gabe, gezurrezko datuak emateak edo horiek ezkutatzeak edo diru-laguntza emakidan ezarritakoa ez bestelako helburuetarako erabiltzeak edo kontroleko jarduketak egiteari uko egiteak edo eragozteak berekin ekarriko du diru-

**Artículo 10.- Reintegro de la subvención**

1.- Procederá el reintegro de las ayudas percibidas en los casos establecidos en el art. 19 de la Ordenanza general reguladora del régimen de concesión de subvenciones del Ayuntamiento de Sopela, así como en el art. 37 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, y en el Capítulo I del Título III del Real Decreto 887/2006, de 21 de julio Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de la Ley.

2.- Así mismo, procederá el reintegro de las ayudas percibidas, en los siguientes casos:

a) Haber sido sancionada o sancionado con carácter firme en vía administrativa, por infracción en materia de dopaje.

b) Haber sido sancionada o sancionado con carácter firme en vía administrativa, por infracción muy grave en materia de disciplina deportiva.

c) Haber sido sancionada o sancionado con carácter firme, en vía penal o administrativa, por haber incurrido en discriminación por razón de sexo.

2.- El reintegro de las cantidades percibidas sobre la subvención aprobada tendrá la consideración de ingresos de derecho público y su cobro se realizará conforme al procedimiento establecido en la Ordenanza municipal de Recaudación del Ayuntamiento de Sopela, así como en las normas de procedimiento establecidas en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, en el Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de la Ley, y en cuanta normativa resulte aplicable.

**Artículo 11.- Justificación del destino**

1.- El Ayuntamiento de Sopela podrá efectuar las comprobaciones que resulten necesarias, en la forma que en cada caso se estime oportuna, con el fin de asegurar el destino y aplicación de las subvenciones concedidas, así como la correcta aplicación de la misma.

2.- Sin perjuicio de las responsabilidades en que se pudiera incurrir, la falsedad u ocultación de datos, así como destinar las ayudas a finalidad distinta de la establecida en su concesión, o la negativa u obstrucción a las actuaciones de control, dará lugar a la pérdida de la subvención y a la obligación, en caso

Baliozkotze Kod.: 7SXJAA3YGKZG73237QPPATF74
Egiaztapena: https://sopela.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 7. orrialdea, guztira 12

laguntza galtzea eta, diru-laguntza eman bada, horren zenbatekoa itzultzea. Horrez gain, berandutze-interesak eskatuko dira, Sopelako Udaleko zerga-bilketari buruzko udal ordenantzan ezarritako prozedurarekin bat etorriz. Onuradunak bidegabe emandako laguntza itzultzeko betebeharra betetzen ez badu edo berandu egiten badu, premiamendu bidean exijitu ahal izango da.

de haberse librado, de reintegro de su importe junto con la exigencia del interés de demora, de conformidad con lo dispuesto en el procedimiento establecido en la Ordenanza municipal de Recaudación del Ayuntamiento de Sopela. En caso de incumplimiento o demora del beneficiario o beneficiaria en la devolución del importe indebidamente abonado, podrá procederse a su exigencia por la vía de apremio.

**12. artikulua. - Ordezko araudi aplikagarria**

Sopelako Udaleko diru-laguntzak emateko araudiaren ordenantza arau-emaile orokorrean, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legean, lege horren erregelamendua onesten duen uztailaren 213ko 887/206 Errege Dekretuan, Herri Administrazioetako Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko Legean, deialdi bakoitzeko unean indarrean dagoen aurrekontuak betearazteko arauan eta aplikatu beharreko gainerako arauetan ezarritakoaren menpe egongo da dekretu honetan xedaturiko guztia.

**Artículo 12.- Normativa supletoria aplicable**

Todo lo dispuesto en el presente Decreto queda supeditado a lo establecido en la Ordenanza general reguladora del régimen de concesión de subvenciones del Ayuntamiento de Sopela, así como en la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, en el Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de la referida ley, en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, en la Norma de ejecución presupuestaria que se encuentre vigente en el momento de cada convocatoria, y demás normativa que resulte de aplicación.

Baliozkotze Kod.: 7SXJAA3YGKZG73237QPPATF74
Egiaztapena: https://sopela.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 8. orrialdea, guztira 12

Sopelako Udala
Ayuntamiento de Sopela

ANEXO I ERANSKINA

## *DIRULAGUNTZA ESKABIDE-ORRIA*

**HOJA DE SOLICITUD**

| | | |
|---|---|---|
| **Abizenak**<br>Apellidos | | **Izena**<br>Nombre |
| **Helbidea**<br>*Domicilio* | | |
| **Udalerria**<br>Municipio | **Probintzia**<br>Provincia | **NAN-AIZ zenbakia**<br>Nº DNI-NIE |
| **Telefonoa**<br>Teléfono | **Posta elektronikoa**<br>Correo electrónico | |

Goi-mailako, errendimendu handiko, promesetako edo aurrepromesetako kirolari, teknikari edo epaileentzako dirulaguntzak eskatzeko epea zabalik dagoenez, laguntza horiek eskatzeko, honako agiri hauek aurkeztu behar dira:

Considerando el plazo abierto para solicitar ayudas económicas destinadas a deportistas, técnicas o técnicos, juezas o jueces de alto nivel, alto rendimiento, promesas o prepromesas, y al objeto de solicitar tales ayudas, presento la documentación oportuna:

1. Indarrean dagoen baldintza hau egiaztatzea **(X batekin markatu)**:

☐ Goi-mailako kirolari, teknikari edo epailea.

☐ Errendimendu/promesa handiko kirolari, teknikari edo epailea.

☐ Aurrepromesako kirolaria, teknikaria, epailea.

1. Acreditación de la condición –en vigor- de **(marcar con una X):**

☐ Deportista, técnica o técnico, jueza o juez de alto nivel.

☐ Deportista, técnica o técnico, jueza o juez de alto rendimiento/promesa.

☐ Deportista, técnica o técnico, jueza o juez de prepromesa.

2. Hirugarrenen fitxa

2. Ficha de terceros

**Eta eskaera honekin batera adierazten dut (X batekin markatu):**

☐ Zerga betebeharra eta Gizarte Segurantzarekin egunean dituela egunean dituela.

☐ Diru-laguntza publikoen onuradun izateko baldintzak betetzen ditudala, (Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorreko 13. artikulua).

☐ **Ez nago ados** Sopelako Udalak, eskura dauden datuen bitartekaritza-sistemen bidez, nire diru-sarrera gordinak 27.000 eurotik beherakoak direla egiaztatzearen aurka nago, honako arrazoi hauek direla eta:

**Y en este mismo acto declaro que (marcar con una X):**

☐ Que me encuentro al corriente de mis obligaciones fiscales y con la Seguridad Social.

☐ Que no concurro en ninguna de las circunstancias que impiden obtener la condición de beneficiario de subvenciones públicas, establecidas en el artículo 13 de la Ley General de Subvenciones.

☐ **Me opongo** a que el Ayuntamiento de Sopela mediante los sistemas de Intermediación de datos disponibles, realice la comprobación que mis ingresos brutos son inferiores a 27.000 euros, por las razones que expongo a continuación:

Baliozkotze Kodea: 7SXJA33YKKZG73337CQPATF74
Egiaztapena: https://sopela.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 9. orrialdea, guztira 12

eta PFEZren deklarazioa edo egin ez izanaren ziurtagiria aurkezten dut

y presento copia de la declaración de IRPF o certificado de no tener obligación de presentarla

**Sopela, 2024ko _______________(e)an.**

**Sopela,______________de 2024.**

Sina. Jn./And./ Fdo. D./Dª

Baliozkotze Kod.: 7SXJAA3YGKZG73237QPPATF74
Egiaztapena: https://sopela.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 10. orrialdea, guztira 12

Sopelako Udala
Ayuntamiento de Sopela

# ANEXO II ERANSKINA

## HIRUGARRENEN FITXA
## FICHA DE TERCEROS

### MUGIMENDU MOTA / TIPO DE MOVIMIENTO

BERRIA – ALTA ☐
ALDAKETA – MODIFICACIÓN ☐

### DATU PERTSONALAK / DATOS PERSONALES

N.A.N./N.I.F. ...................................
I.F.K. / C.I.F. ....................................

Izen abizenak edo sozietatearen izena / Nombre y apellidos o razón social.

.........................................................................................................................

Kalea/Calle ................................................................................................

Herria/Población .........................................................................................

Posta kodea/Código postal ............................................................................

Lurraldea/Provincia ....................................................................................

Telefonoa/Teléfono..........................................................................................

Emaila/email.................................................................................................

### BANKETXEAREN DATUAK / DATOS BANCARIOS

BIC ................................................

Bankuaren izena/Nombre del Banco ..............................................................

IBAN ........................................................................................................

Sinadura / Firma                Data / Fecha

*Sabino Arana, 1. 48600 Sopela (Bizkaia). Tfno.: 94 406 55 00*

Baliozkotze Kod.: 7SXJAA3YGKZG73237QPPATF74
Egiaztapena: https://sopela.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 11. orrialdea, guztira 12

**Eta erasota gera dadin eta dagozkion ondorioak sortu ditzan, Egiaztagiri hau luzatzen da Alkate andrearen Olarekin, Sopelan, 2024ko ekainaren 14an.**

**Y para que conste y surta los efectos oportunos, se expide la presente Certificación de Orden y con el VB de la Sra. alcaldesa, en Sopela, a 14 de junio de 2024.**

**ALKATEA – LA ALCALDESA**
**IDAZKARIA – LA SECRETARIA**
*(Elektronikoki sinatua – Fdo. Electrónicamente)*

Baliozkotze Kod.: 7SXJAA3YGKZG73237QPPATF74
Egiaztapena: https://sopela.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 12. orrialdea, guztira 12